

NAFARROAN KIROLLEN TESTUINGURUAN JAZARPEN-EGOEREN AURREAN JARDUTEKO PROTOKOLOA

1. Sarrera eta helburuak

Indarkeriarik gabeko eta errespetuzko kirol-jardueraren esparrua osatzen dute kirolaren balioek eta bakerako hezkuntzak, zentzurik zabalenean, eta Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak, Nazio Batuen Biltzar Orokorrak 1948ko abenduaren 19ko 217 A (III) Ebazpenaren bidez aldarrikatutakoak. Horren barne daude indarkeriaren prebentzioa, aniztasuna onartzea eta errespetatzea, gatazkak konpontzeko elkarrizketa, pertsona guztien arteko berdintasuna eta jarduera fisikoetan eta kirolean diharduten pertsonen partaidetza inklusiboa sustatzea.

Esparru hori eztaba daezina bada ere, eguneroko jardunak erakutsi du kirolean gizartean onartezinak diren portaerak, erasoak eta tratu txarrak izaten direla, hala elkarren arerio diren kirolarien artean nola talde edo klub beraren barnean ere. Kasu horietan Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak (NKGI) dagozkion diziplina-prozedurak aktibatzen ditu eta gatazkak era baketsuan konpontzeko esku-hartzeak eta estrategiak proposatzen ditu.

Horrez gain, kirolaren esparruan gerta litezkeen jazarpen-kasu posibleen aurrean jarduteko protokolo hau ere ezarri du.

Bi alderdi lantzen ditu kirolaren esparruan gerta litezkeen jazarpen-kasu posibleen aurrean jarduteko protokoloak: prebentziozkoa bat, eta esku hartzera bideratutakoa bestea.

PREBENTZIOak Nafarroako kirol-elkarte guztientzako nahitaezkoak izanen diren jarduketa hauek ditu ardatz:

2.1 Kirolarien babesaren bermatzea, gorputz- eta kirol-jardueretan gerta litezkeen jazarpen-kasu posibleen aurrean.

2.2 Tratu txarren, jazarpenaren eta beste edozein abusuren zantzuak daudenean jarduteko prozedura bat ezartzea.

1. 3. Edozein indarkeria edo tratu txarren kontra egin eta erantzuteko giroa sustatzea, batik bat adingabeen kontra egiten denean.

Abiapuntu bezala, erakunde bakoitzaren barne-araudiak jazarpen kasuetan jarraitu beharreko protokoloa jasoko du, bai eta hori aplikatzeko arduradunak ere. Horretarako, protokolo hau ezarri da eredu orokor bezala. Klub bakoitzari egokitu beharko zaio, kasu bakoitzaren ezaugarrien, kideen eta berezitasunen arabera. Protokolo hau aplikatzeko, gomendagarria da arduradunak (normalean, kiroltasuneko arduraduna izanen da) gaiaren inguruko prestakuntza edo, gutxienez, aholkularitza jaso izana.

2 Kirol-jazarpena eta jarduteko protokoloa.

2. 1. Definizioa eta printzipioak:

Kirol-jazarpena honako hau da: eraso eta jazarpen fisikoa, hitzezkoa edo soziala dakarten portaerak, nahita

egindakoak eta denboran zehar irauten dutenak, kirol-talde edo -erakunde bateko kide batek edo batzuek beste kide ahulago baten kontra zuzentzen dituztenak. Jazarpen hori klubean bertan eta/edo kanpoan gauzatu daiteke, bai eta teknologia berrien bidez ere; era berean, klubeko pertsonak edo hainbat klubetakoek parte har dezakete.

Kirolari bat edo kirolaren arloko beste eragile bat tratatu txar fisiko, psikologiko edo sozialen biktima delako susmoak edo ebidentziak dituen ororen betebeharra da horren berri ematea kirol-erakundeko arduradunei (horiek familia jakinaren gainean jarriko dute) edo agintari eskudunei, premiazko kasuetan egoki izan litezkeen jarduketan kalterik gabe.

Kirol-arduradunek ondoko printzipio hauek bermatu beharko dituzte nonahi eta beti:

- o **Babesa.** Lehen helburua irainak edo eraso geldiarazi eta berriro ez sortzea da.
- o **Esku-hartze eraginkor, azkar eta ez-presatsua:** Hautemandako indarkeriazko gertaeren aurrean beti esku hartu behar da, eraginkortasunez eta azkar, eta inoiz ere ez presaka. Erantzunean bi neurri motak hartuko dira kontuan: konpontzaileak eta, hala behar denean, diziplinakoak.
- o **Zuhurtasuna eta isilpekotasuna:** horrek esan nahi du esku-hartzean inplikaturiko pertsonak soilik ezagutuko dituztela gertaerak, gorabeherak eta jarduerak.
- o **Talde guztiarekin esku hartzea:** Inplikaturiko kirolari guztiak barne hartuko dira esku-hartzean: biktimak, jazarleak eta lekukoak.
- o **Zuhurtasuna eta sentikortasuna** esku-hartzeetan. Kontuan hartu behar da arazo honek sufrimendu handia eragiten duela biktimengan zein familiengan. Familiek zuhurtziaz jokatzeko eta zehaztutako neurriak aplikatzeko klubarekin elkarlanean aritzea ere oinarritzeko baldintzak dira.

Komunikazio-prozesuak zainduz, kirol-erakundeak fase hauek aplikatuko ditu, jarduteko hurrenkera honetan:

- 1.- Hautematea, hasierako informazioa biltzea, protokoloa abiaraztea, arduradun bat izendatzea eta modu sistematiakoan behatzea.
- 2.- Kasua baloratzea eta jarduteko plana osatuko duten neurriak zehaztea.
- 3.- Jarduteko plana garatzea.
- 4.- Kasuaren ebaluazioa eta jarraipena egitea.

2. 2. Kirol-erakundeen protokoloaren **diagrama kronologikoa**, kirol-jazarpeneko kasuen aurrean.

KIROL-JAZARPENA EGON DAITEKEENeko KASUETARAKO PROTOKOLOAREN DIAGRAMA

Zer gertatzen da?/zer egin?	Data gutxi gorabehera	Arduraduna
Norbait tratu txarren bat jasotzen ari dela jakin da.	Lehen eguna	Edozein pertsona
Entrenatzaileari, koordinatzaileari edo erakundeko presidenteari	Lehen eguna	Edozein pertsona
Protokoloa abiaraztea. Kasuaren arduradun bat izendatuko da, babesteko lehen neurriak ezarriko dira eta familiari egoeraren berri emanen zaio, biktima adingabea bada.	Lehen eguna	Presidentea eta kiroltasuneko arduraduna
Sistematikoki behatzea, inplikaturiko pertsona posibleak (biktima, jazarleak eta ikusleak) eta arrisku handieneko eremuak zeintzuk diren zehaztu ostean. Zaintza antolatzea eta behatutakoa erregistratzea.	Lehen eta bigarren egunetik aurrera	Entrenatzailea, kirol-arduraduna, kirolariren bat eta kiroltasuneko agentea.
(*) Kirolarien eta/edo, hala badagokio, gurasoen baimen informatuak lortzea, informazio pertsonal esanguratsua duten gailuetara sartzeko.	Gailu pribatuetara sartu aurretik	Presidentea edo kirol-arduraduna
Gaia serioa eta egiaztatua den aztertzea. Kautelazko eta/edo prebentziozko neurriak. Gaia larria ez bada eta biktimarekin eta erasotzailearekin hitz eginez konpontzeko aukera «argia» ikusten bada, hobe da hala egitea, indarrak orekatuta ez daudela ageriko ez den bitartean. Ez da gomendagarria biktima eta erasotzaileak	Lehen eguna	Presidentea, kirol-arduraduna eta inplikaturako entrenatzaileak
Biktimaren babesa bermatzea eta antolatzea.	Protokoloa aktibatuta dagoen bitartean	Presidentea, kirol-arduraduna eta inplikaturako entrenatzaileak
Ustezko biktimarekin hitz egitea. Betiere diskrezioa bermatuz. Gainerako taldekideen ez ikusteko moduan. Beharbada telefonoz? <ul style="list-style-type: none"> • Aditzera ematea gure asmoa laguntzea dela. Esan gure laguntza izanen duela. • Konta dezala zer gertatzen zaion. • Esan gaia landu nahi dugula eta hori egiteko berak ados egon behar duela. • Arazoa taldean lantzea erabakiko balitz: Bertan egon nahi luke edo ez? • Jakin dezala berarekin gaudela. Gainerako protagonistekin egin beharreko elkarrizketak	Lehen edo bigarren eguna	Kirol-arduraduna edo biktimarekin lotura afektibo ona duen pertsona.
Biktimaren zein erasotzaileen familiekin hitz egiteko unerik egokiena zein den baloratzea. Komeni da momentuan bertan egitea edo hobe da pixka batez itxarotea? Beste testuinguru batzuei (adibidez, ikastetxeari) jakinaraziko zaie?	Bigarren eguna	Presidentea edo kirol-arduraduna
Esku artean dugun informazioa aztertzea. Lehenbailehen argitzea gertatutakoaren larritasuna eta kasua hauetakoren bat den: <ul style="list-style-type: none"> • Jazarpena. • Ziberjazarpena, sextinga, groominga, genero-indarkeria, etab... • Uneko eraso. • Gatazka. Baloratzea beharrezkoa den taldeko kide guztiekin edo batzuekin hitz egitea. Eskuratutako informazio dokumentala gordetzea eta	Bigarren edo hirugarren eguna	Presidentea edo kirol-arduraduna

NKGIko Bitartekaritzarako Bulegoari jakinaraztea (eta, behar bada, aholkularitza eskatzea). Tel: 848 427845	Hirugarren eguna	Presidentea edo kirol-arduraduna
Datuak aztertzea eta gaia bideratzeko modua erabakitzea. Jarduteko plana ezartzea (neurriak idatziz zehaztuz)	Hirugarren eguna (edo behaketa)	Presidentea edo kirol-arduraduna
Faltaren kalifikazioa eta, hala behar denean, zehapenaren	Hirugarren	Presidentea
Hausnarketa taldean: Ezinbestekoa da kaltea konpontzea, bai erasotzaileena, bai taldearena. Biktimarekin alde aurretik erabaki da hausnarketa-saioan egonen den edo ez.	3. edo 4. eguna eta hurrengoak	Kirol-arduraduna eta entrenatzailea
Biktimarekin hitz egitea eta babesa ematea. Nahikoa izan daiteke kontaktu txikiak egitea: «Zer moduz zaude? Badakizu zerbait gertatzen bada kontatu egin behar diguzula, badakizu hau guztia konpondu eta argitu nahi dugula...»	Hasieratik harik eta ondo egon arte.	Kirol-arduraduna edo biktimarekin lotura afektibo ona duen pertsona.
Lana jazarleekin. Banaka eta/edo taldean.	Plana zehaztu ondoren.	Kirol-arduraduna eta entrenatzailea
Jarduteko planaren jarraipena egitea (batik bat biktimari laguntzeari eta haren harremanei dagokienez) eta planaren berrikuspen posibleak.	Zehazteke	Kirol-arduraduna

* Jarduera hauek burutu ziberjazarpena, groominga edo sextinga gertatzen denean, egokia bada.

2. 3. Kirol-erakundearen jarduna.

a) Kirol-klub eta erakundeak behartuak daude indarkeriazkoak eta sufrimendu-eragileak izan daitezkeen gertaerak aztertzeraz, bereziki, adingabeko kirolarien jazarpena gertatzen ari dela susmatzen dutenean. Erakundeko kide guztiek izan behar dute argi ezinbestekoa dela esku hartzea jazarpen-kasuak edo beste edozein indarkeria motakoak gertatzen direnean, eta presidenteari edo kiroltasuneko arduradunari haien berri eman behar dietela, bai eta NKGIko Kirol Gatazketan Bitartekaritza Egiteko eta Esku Hartzeko Bulegoari ere.

b) Kirol-erakundeek, dituzten ezaugarri, behar eta egoera jakinei egokituta aplikatuko dute protokoloa jazarpen-kasuetan, esku hartze horietan babes, eraginkortasun, diskrezio, konfidentzialtasun, koordinazio,

zuhurtasun eta sentsibilitatearen printzipioak bermatuta, betiere.

d) Erakundearen presidentetza izanen da prozesuaren arduraduna. Alabaina, koordinazio- eta jarraipen-lanak kiroltasuneko arduradunari esleitu ahal izanen zaizkio eta horrek, bestalde, entrenatzaileetako baten edo kirolari baten laguntza izan dezake, kiroltasuneko agente bezala. Edozein zalantza edo zailtasunen aurrean, laguntza eskatu ahal izanen zaio NKGiko Kirol Gatazketan Bitartekaritza Egiteko eta Esku Hartzeko Bulegoari.

e) Kirol-erakundeko presidentetzak esku hartzeko betebeharra izanen du jazarpen-kasu baten berri duenean, kirolari batek edo kirolari adingabe baten legezko tutoreak idatziz eskatzen duenean edo NKGik edo agintari eskudunek agintzen dutenean. Era berean, kirol-erakundeak NKGiko Kirol Gatazketan Bitartekaritza Egiteko eta Esku Hartzeko Bulegoari jakinaraziko dizkio egiaztatutako jazarpen-kasu guztiak.

Gainera, kirol-erakundeak esku hartuko du jazarpena teknologia berrien bidez edo kirol-jardunaren esparru eta ordutegitik kanpo gertatzen denean ere, gertakariak harremanik badute kirol-erakundeko kideen arteko bizikidetzarekin edo harremanarekin.

Arau orokor bezala, egiaztatutako tratu txar edo jazarpen-kasuetan, jazarleek ez badute beren portaera eta jarrera berehala modu argian aldatzen, taldetik kanporatzeko zehapena aplikatuko zaie. Hala ere, jazarpeneko jarrerak desagerrarazteko ezinbesteko dira prebentzioa eta esku-hartzea, balioetan hezita.

Dokumentu honen amaieran autoebaluaziorako eredu bat dago, klubek erabiltzeko, kasu bakoitza ebazteko beharrezko neurriak hartzen ari diren egiaztatzeko (3. eranskina: «Aztertzen ari garen jazarpen-kasu posiblearen aurreko autoebaluazioa»)

2. 4. NKGIren jarduketak. Kirol Bitartekaritzarako Bulegoa:

NKGIk bere araudi espezifikotik eratorritako jarduketa espezifikoak gauzatuko ditu eta protokolo honen aplikazioaren jarraipena egingen du, Kirol Gatazketan Bitartekaritza Egiteko eta Esku Hartzeko Bulegoaren bidez.

Planteatzen diren aholku eta eskaera guztiak jasoko ditu Bitartekaritzarako Bulegoak. Horiek hainbat modutan iristen ahal dira, eta klubek, kirolariek, familiek edo inplikaturiko beste pertsona edo erakunde batzuek aurkezten ahal dituzte. Aholkularitzaz gain, bulegoaren esku-hartzea ere behar denean, idatziz eskatu beharko da. Idatzizko eskaera jaso ondoren, bulegoko arduradunak eskaera horren berri emanen dio erakundeko presidentetzari, eta beharrezko esku-hartzeak planifikatu eta gauzatuko ditu haren laguntzarekin.

Hortaz, Kirol Bitartekaritzarako Bulegoaren esku-hartzea idatzizko eskaera bat dagoenean egingen da, baina baita ofizioz ebazten denean ere. Bulegoak ezagutzen diren kasu guztiak erregistratuko ditu.

2.5 Protokoloa ixtea

Ez dago jarduteko protokoloa ixteko momentu zehatzik, hizpide ditugun alderdietako batzuen araberrako izanen baita hori. Alabaina, hainbat kasutan amaitutzat jo daiteke protokoloaren aplikazioa:

- Kasua guztiz ebatzita dagoenean eta klub barruko harremanak eta giroa konpondu eta berrezarri direnean.
- Denboraldia amaitzen denean (salbu eta erabakitzen bada hurrengoan ere protokoloak martxan jarraitu behar duela).
- Inplikaturiko kirolariek kluba uzten dutenean.

2.6 Esku hartzeko eskaeraren ereduak

kasu batean inplikaturako pertsona batek kirol-klub baten edo Kirol Bitartekaritzarako Bulegoaren esku-hartzea eskatu nahi duenean 1. eta 2. eranskinetako ereduak erabil ditzake, hurrenez hurren.

2.7. Kontaktu interesgarriak

NAFARROAKO KIROLAREN ETA GAZTERIAREN INSTITUTUA

NKGIren webgunean deskribatutako figurentzako laguntza-materialak eta orientazioak daude, bai eta kirolaren balioak sustatzen lan egiten edo laguntzen dutenentzako dokumentuak ere:

<https://www.deporteyjuventudnavarra.es/es/oficina-de-mediacion-deportiva>

Helbidea: Arrieta kalea, 25, 1. • 31002 Iruña.

Telefonoa: 848 427892 – Faxa: 848 42 36 28

infoegindj@navarra.es

Kirol Bitartekaritzarako Bulegoa

Helbidea: Arrieta kalea, 25, 1. • 31002 Iruña.

Telefonoa: 848 427 845

mediaciondeportiva@navarra.es

LARRIALDIAK

Larrialdiak: 112

FORUZAINGOA

Laguntza Brigada

Helbidea: Fuente de la Teja kalea, z.g. • 31006

Iruña Telefonoa: 848 426 403

Helbide elektronikoa: pfasistencial@navarra.es

Aginte eta Koordinazio Zentroa

Telefonoa: 948 202 920

GUARDIA ZIBILA

Pertsonen kontrako Delituen eta Delitu Telematikoaren Brigada

(Polizia Judizialaren Unitate Organikoa - Pertsonen kontrako delituen arloa) Helbidea: Galizia etorbidea, 2 • 31003

Iruña

Telefonoa: 948 296 850, 5262 luzapenarekin, eta 062 (24 ordu)

UDALTZAINGOAK ETA TOKIKO POLIZIAK

Telefonoa: 092, 112 eta SOS NAFARROA 650 738 005 (azken honek SMS formatuko mezuak igortzeko aukera ematen du).

Anexo 1:

SEÑOR Presidente / SEÑORA Presidenta del Club:

.....

Nombre del/de la Deportista:

Edad / categoría:.....

Motivo de la solicitud:

Descripción breve de los hechos:

Firmado:
En calidad de (deportista, compañera/o, entrenador/a, m/padre)
Firma y fecha

Klubeko lehendakari jauna / lehendakari andrea:

.....

Kirolariaren izen-deiturak:

Adina / kategoria:

Eskaeraren arrazoia:

Gertatutakoaren deskribapen laburra:

Sinatua:

(Esan zer den: kirolaria, laguna, entrenatzailea, aita edo ama)

Sinadura eta data



2. eranskina:

SOLICITUD A LA OFICINA DE MEDIACIÓN E INTERVENCIÓN EN CONFLICTOS DEPORTIVOS

Nombre de la persona que hace la solicitud:

DNI:

Teléfono:

Dirección:

Es (subrayar):
Deportista chica
Deportista chico
Entrenador/a
Árbitro/a
*Padre
*Madre
Otro (Especificar):

Nombre de la/del deportista:

Edad:

Deporte:

Club:

Nombre de la persona que le representa:

Razón para la solicitud (*Si es necesario puede escribirse en el reverso*):

En _____, a _____ de _____, de _____

Firma:

*En casos de posible acoso de un/a menor, es preciso firmar la siguiente autorización.

**Progenitor o tutor legal que autoriza, en el caso de su hijo/a, la
intervención de la Oficina de Mediación del INDJ:**

Nombre:

Firma de la autorización:

**KIROL GAZTAZKETAN BITARTEKARITZA EGITEKO ETA ESKU
HARTZEKO BULEGOARI ESKABIDEA**

Eskatzailearen izen-deiturak:

NANA:

Telefonoa:

Helbidea:

Zer den (azpimarratu)

Kirolaria (neska)

Kirolaria (mutila)

Entrenatzailea

Arbitroa

***Aita**

***Ama**

Beste norbait: (zehaztu zein):

Kirolariaren izen-deiturak:

Adina:

Kirola:

Kluba:

Kirolariaren ordezkariaren izen-deiturak:

Eskaeraren zergatia (Beharrezkoa bada orrialdearen atzean idatzi):

_____ (e)n, _____ (e)ko _____ aren _____ (e)an

Izenpetua:

*Adingabe batek jazarpena jasan duela uste denean, beharrezkoa da hurrengo baimen hau sinatzea.

Aita, ama edo legezko tutorea, baimentzen duena NKGiko Kirol Bitartekaritzarako Bulegoak haren seme edo alabaren aferan esku har dezan.

Izen-deiturak:

Baimenaren sinadura:

3. eranskina

AZTERTZEN ARI GAREN JAZARPEN-KASU POSIBLEAREN AURREKO GALDETEGIA

Kluba:

Kirolaria:

Kirola:

Adina:

Entrenatzailea:

* Marratxo (~) bakoitza markatu, dagokion jarduketa egin denean. Hala dagokionean, bete zirkulua ere. Horretaz gain, idatzita ez dauden beste esku-hartze batzuk egin badira, idatzi hori zuri dauden tarteetan.

Galdetegia beteko duen pertsona:

Eguna:

- ✓ Jazarpena honako hau da: eraso eta jazarpen fisikoa, hitzezkoa edo soziala dakarten **portaerak**, **nahita** egindakoak eta **denboran zehar irauten dutenak**, kirol-talde edo -erakunde bateko kide batek edo batzuek beste kide **ahulago** baten kontra zuzentzen dituztenak. Jazarpen hori klubean bertan eta/edo kanpoan gauzatu daiteke, bai eta teknologia berrien bidez ere; era berean, klubeko pertsonak edo hainbat klubetakoek parte har dezakete.
 - ✓ Klubak behartuak daude indarkeriazkoak eta sufrimendu-eragileak izan daitezkeen gertaerak aztertzeraz, bereziki, jazarpena gertatzen ari dela susmatzen dutenean.
 - ✓ Kirol-erakundeko edozein kide behartua dago jazarpen gertaeren edo bestelako indarkeriaren berri ematera zuzendaritzari, haien jakitun izanez gero.
 - ✓ Klubek jazarpeneko gertaeren aurrean jarduteko protokoloa aplikatu behar dute. Klubeko presidentetza da prozesuaren legezko arduraduna.
- ~ Ez dugu protokoloa aplikatu.
- ~ Protokoloa aplikatu dugu. Jazarpen kasu bat dela ikusi dugu.
- Bai, zalantzarik gabe.
 - Bai, zalantzekin.

- Ez da jazarpena, gatazka serioa da.
- Ez da jazarpena, eraso puntual bat da.
- Ez da jazarpena, gatazka sinplea da.

EKINTZA OROKOR EGINGARRIAK

- ~ Gure ekintza guztiek babestearen printzipioa kontuan hartzen dute.
- ~ Gure ekintzak eraginkorrak, azkarrak eta ez-presatsuak izaten ari dira /izan dira.
- ~ Diskrezioaren eta isilpekotasunaren printzipioa gordetzen dugu.
- ~ Inplikaturiko kirolari guztiekin esku hartzen dugu.
- ~ Zuhurtziaz eta sentiberatasunez ekiten diogu.
- ~ Diziplina mailan aritzen gara.
- ~ Laguntza-baliabide guztiak aztertu ditugu.

EKINTZA EGINGARRIAK. ENTRENATZAILEAK.

- ~ Kasuaren arduraduna izendatu da?
 - Bai, bere izena hau da:.....
 - Ez.
- ~ Biktima posiblearen ingurunean sistematikoki behatzen dute entrenamenduetan, partidetan eta lehiaketetan?
 - Behatzera goaz.
- ~ Talde honetako entrenatzailek ezagutzen eta kontrolatzen dute gaia?
 - Neurriak hartuko ditugu, entrenatzaileek gaia ezagutu eta kontrola dezaten.
- ~ Entrenatzaileek badakite nori jakinarazi behar diote behatutakoa?
 - Entrenatzaileei esanen zaie nola eta nori jakinarazi behar dioten behatutakoa.
- ~ Klubeko beste langile batzuek modu sistematikoan behatzen dute biktima posiblearen ingurunea?
 - Jarraibide zehatzak emanen dira hori egin dadin, informazioa nola eta nori jakinarazi behar zaion azalduz.
- ~ Badago mekanismorik jakiteko klubetik kanpo nola tratatzen duten biktima?

- Bai,
Zein?.....
- Jarraibideak emanen zaizkio norbaiti horri buruzko informazioa eman dezan.
- ~ Prestatu da kirolariaren babes diskretua aldagelan?
 - Jarraibideak emanen dira babes hori ezar dadin.
- ~ Babesa bermatzen da klubera sartzean eta bertatik irtetean?
 - Bermatuko da. Jarraibide zehatzak emanen dira, nola egin jakiteko.
- ~ Entrenatzaileek badakite nola jokatu behar den balizko biktimarekiko jazarpen edo tratu txarren gertaera bat ikusten badute?
 - Bermatuko dute entrenatzaile guztiek jakinen dutela nori jakinarazi behar dioten, halako gertaerarik ematen bada.
- ~ Klubeko presidentetza jakinaren gainean dago?
 - Horren berri emanen zaio.
- ~ NKGI jakinaren gainean dago, egoeraren berri eman diegulako?
 - Erabaki da noiz jakinaraziko zaien.
 - Ez.
- ~ Arazoa konpontzeko bestelako baliabideren bat kontuan izan dugu (familia, osasun-zerbitzuak edo beste erakunde batzuk)?
 - Bai
(zein?):.....
 - Ez.

EKINTZA EGINGARRIAK. FAMILIAK.

BALIZKO BIKTIMAREN FAMILIA

- ~ Klubak behar bezala hartu du biktima posiblearen familia?
 - Bai.
 - Ez, baina behar bezalako harrera bermatuko du etorkizunean.
- ~ Klubak erreferentziazko pertsona bat izendatu du biktima posiblearen familiarentzat?
 - Bai. Hauxe
da:.....
 - Erreferente bat ezarriko da. Pertsona hau izanen
da:.....
- ~ Klubak komunikazio-bide eraginkor eta azkarrak ireki ditu, bi norabideetan, biktima posiblearen familiarekin?

- Hauek izanen dira komunikatzeko bideak: Helbide elektronikoa. Telefono zk. Oharrak paperean.
Bestelakoak:
(aipatu).....
...
- ~ Familiak naturaltasunez jakinarazten ditu arazoak?
 - Bai
 - Ez.
Zergatik?.....
- ~ Abegitsu jokatzeko dugu familiarekin? (beraien jokamoldea zeinahi delarik ere, nahiz eta muga argia den errespetu-faltarena).
- ~ Biktimari eta familiari egoerari aurre egiteko irakurgairen bat eta/edo jarraibideren bat gomendatu diegu?
- ~ Lege-esparruaren gaineko informazioa eman diegu?

BALIZKO JAZARLE(AR)EN FAMILIAK

- ~ Ustez jazarleak diren pertsonen familia guztiekin banan-banan harremanetan jarri da kluba?
 - Klubak baloratuko du familia horiek kontuan izanen dituen edo ez.
 - Klubak laguntzeko konpromiso bat sinatzeko eskatuko du.
- ~ Klubak erreferentziazko pertsona bat izendatu du jazarle posiblearen familientzat?
 - Klubak baloratu egingen du komeni ote den erreferentziazko pertsona hau jartzea:.....
....
- ~ Klubak komunikatzeko bide eraginkor eta azkarrak ireki ditu, bi norabideetan, jazarle posibleen familiekin?
 - Hauek izanen dira komunikatzeko bideak: Helbide elektronikoa. Telefono zk. Oharrak paperean.
Bestelakoak:
(aipatu).....
...
- ~ Familiekin konfiantza dute klubean eta lankidetzan ari dira?
- ~ Familiekin naturaltasunez jakinarazten dituzte arazoak?
- ~ Abegitsu jokatzeko dugu familiekin? (haien jokamoldea zeinahi delarik ere)

- ~ Irakurgairen bat (esan zein) eta haiantzako eta seme/alabarentzako jarraibideak gomendatu dizkiegu?

FAMILIAK, ORO HAR

- ~ Klubak jazarpenaren arazoaren gaineko informazio-saio batera deitu ditu familiak?
 - o Egitea komeni den (ala ez) baloratuko da (ez da egokia kasuari aurre egiteko prozesu betean). Ondokoa erabaki da:

EKINTZA EGINGARRIAK BIKTIMAREKIN

- ~ Klubak kirolari jazarriarekin komunikatzeko bide seguruak ireki ditu (beldurrik gabe hitz egin dezake, inor salatari kontakatilu dela pentsatu gabe)?
 - o Ez, baina bide hauek irekiko dira:
.....
....
- ~ Klubak erreferente bat ezarri du biktima laguntzeko? Hauxe da:
.....
 - o Ez, baina erreferente hori jarri behar ote den baloratuko da.
 - o Aserbitatea lantzen ari da biktimarekin.
- ~ Arduraduna biktimarekin bildu da, babesa eta laguntza eskaintzeko?
 - o Ez, baina baloratu egingen da.
- ~ Biktimak badaki, erasoren bat pairatzen badu, norengana jo behar duen eta noiz eta nola kontatu behar dion, egoeraren arabera?
 - o Ez, baina biktimari jakinaraziko zaio noiz, nola eta nori kontatu behar dion gertaturikoa.
- ~ Ziur gaude biktimak ez duela bere burua epaitua sentitzen?
- ~ Ziur gaude ikasleari argi gelditu zaiola guk lagundu egin nahi dugula?
- ~ Ziur gaude biktima posibleak badakiela zer egingen dugun une bakoitzean?

- ~ Esan diogu bere arazoa konpontzen saiatuko garela eta horretarako bere laguntza behar dugula?
- ~ Irakurgairen bat edo abilezia sozialen bat gomendatu diogu?

EKINTZA EGINGARRIAK. ERASOTZAILEAK

- ~ Beti eta modu egituratuan, argi utzi dugu indarkeria, edozein formakoa izanik ere, ez dela inoiz ere onartuko klubean/taldean? (Ez da gauza jakintzat joko, klubak bermatu beharko du mezu hori ematen dela talde guztietan).
 - o Ez, baina honela egingen dugu:.....
- ~ Pikas metodoa erabili dugu?
 - o Ez, baina aplikatu egingen da.
 - o Ez, baina banakako bilerak egingen ditugu.
- ~ Konpromiso bat erdietsi dugu taldearekin?
 - o Hori lantzen ari gara.
 - o Ez gara saiatu, baina landuko dugu.
- ~ Hausnarketa-fitxak aplikatu ditugu?
 - o Baloratuko dugu aplikatu behar diren.
- ~ Zehapenik aplikatu dugu?
 - o Ez, baina aztertuko dugu aukera.
 - o Baloratu genuen eta erabaki genuen ez zela egokia.
- ~ Galdetegi edo soziogramaren bat pasa dugu?
- ~ Enpatia edo asertibitatea landu dugu beraiekin?.
- ~ Barkamena landu dugu haiekin?

EKINTZA EGINGARRIAK TALDEAREKIN (Lekukoak)

- ~ Argi utzi dugu indarkeria, edozein formakoa izanik ere, ez dela inoiz ere onartuko klubean/taldean?
- ~ Kirolariak elkarrizketatu ditugu, arazoa diagnostikatzeko?

- Ez dugu egin, baina egun honetan eginen dugu:.....
- ~ Galdetegi bat pasatuko dugu, arazoa diagnostikatzeko?
 - Ez dugu egin, baina egun honetan eginen dugu:.....
- ~ Landu ditugu beraiekin enpatia eta/edo asertibitatea, baldintza gabeko onarpena...?
- ~ Landu dugu legeria?
- ~ Elkarrekin barre egitearen eta norbaiten kontura barre egitearen arteko diferentzia landu dugu?
- ~ Norbait salatzearen eta justiziaren arteko diferentzia landu dugu?
- ~ Konpromiso kolektiboa bilatu dugu (ardura partekatua)?
- ~ Berdinen arteko babesa antolatu dugu?
- ~ Kirolari laguntzaileak inplikatu ditugu?
- ~ «Itzalean» dauden kirolariak jarri ditugu (diskrezioz lagundu eta babesten dutenak)?
- ~ Entzuketa aktiboko saioren bat praktikatu dugu?
- ~ Argi dute legeak zuzendaritzari jakinarazteko obligazioa ezartzen duela?
 - Ez dugu orain arte landu, baina landuko dugu.
- ~ Beste neurri proaktiboak, aisialdirako jarduerak, dinamikak, bideoak eta abar programatu ditugu?

EKINTZA EGINGARRIAK INGURUNEAN

- ~ Behar besteko diskrezioz eta baimenarekin, NKGIrekin harremanetan jarri gara? Gizarte-zerbitzuekin? Poliziarekin?
- ~ Jazarpenaren pediatria eta/edo terapeutekin harremanetan gaude, eta batera lan egiten dugu profesional horiekin?

~ Harremanetan jarri gara aisialdi-taldeekin, udaleko gazteria-zerbitzuekin edo beste erakunde batzuekin?